

LANA, FAMILIA ETA NORBERAREN BIZITZA UZTARTZEARI BURUZKO INKESTA (LBU) (2012)

Euskal AEko emakume okupatuek egunean zehar haurrak eta mendeko pertsonak zaintzen pasatzen duten denbora gizonek pasatzen dutena ia bi aldiz da

Pertsona okupatuen %40k irteera-ordutegi malgua du

Etiket kanpo lan egiten duten emakumeek 4,6 ordu pasatzen dituzte egunean 15 urte baino gutxiagoko seme-alabekikoak egiten; gizonak 2,9 ordu, Eustaten datuen arabera. Mendekotasunen bat duten pertsonak egiteko orduan, aldea areagotu egiten da: gizonak 1,4 ordu egunean, emakumeek 2,9. Emakume okupatuen %47,9k soldatiko lanean emandako denboraz gain 5 ordu edo gehiago pasatzen ditu egunean adin txikiak zaintzen. %20,8k denbora horixe ematen dute mendeko pertsonak zaintzen. Gizon okupatuen erdiak (%49,1ek) seme-alaben zaintan bi ordu edo gutxiago pasatzen ditu.

2010eko datuen aldean, seme-alabak eta mendeko pertsonak zaintzen egunean 5 ordu edo gehiago pasatzen dituzten emakumeen portzentajeak jaisten ari dira: ehuneko 6,4 puntuz aurrea eta 15,8z bigarrena.

Etxe lanak banatzeko orduan, aldea oraindik handiagoa da: 10 gizonetik bederatzik (%91,5) bi ordu edo gutxiago ematen ditu; emakumeen laurdenak (%27,9) hiru ordu edo gehiago.

Emakume okupatuen bostetik ia batek dio inondik ere ez dagoela konforme bikoteak eginikoarekin, etxe lanen banaketaz ari garela. Gizon okupatuen gehiengo handi bat, %77,6, oso gustura dago bikoteak eginiko etxe lanez.

Nabarmenezkoa da emakume langileen gogobetetasuna haurrak zaintzeaz (%62k dio handia dela), baita etxe lanez ere (%48,3k), gizonak diotenaren (%50,9, %46,2) nabarmen gainera dagoela.

Euskal AEko 10 pertsona okupatutatik 3k (%29,5) dio lana eta mendeko pertsonak zaintzea, biekikoa egitea, oso zaila dela. Ez da hain zaila lanarekiko eta seme-alabekiko burutzea (%24,9k dio zaila dela), eta jardura pertsonalez ari garela portzentajea (%24) oso antzekoa da.


Pertsona okupatuen hamarretik lauk irteera-ordutegi malgua du

Biztanle okupatuen %23,9 ia beti, eta antzeko ehuneko bat zenbaitetan, lanaldia luzatu beharrean egoten dira.

Irteteko malgutasunaz -bateragarritasuna hobetzeko beste lanabes bat- okupatuen hamarretik lau -%40,6- baliatzen da; emakumeak gutxiago -%37, gizonak baino -%43,8. Etxean bertan, %8,2k noizean behin lan egiten du eta %4,6k egun erdietan gutxienez.

Lana, familia eta bizitza pertsonala bateragarri egiteko neurrien artean, lanetik irten ahal izatea okupatu gehien-gehienaren eskura dago; soldatarik gabeko egunak okupatuen %59,8k eska ditzakete. Langileen erdiak gutxi gora-behera dio arazo handirik ez duela eszedentzia edo lanaldi-murrizketak lortzeko.

Euskal AEko landunak, baimenak eskatzeko zailtasunaren arabera (%). 2012



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta

Eszedentzia edo lanaldi murriztua eskatzeak lan-sustapenaren kalterako ote den beldurak gehiago eragiten die emakumeei (%29,4) gizonei (%25,5) baino. Beldurrik handiena, halere, gazte jendeak du. Bost emakumetatik batek uste du amatasuna kaltegarri litekeela sustapenerako; berriz, gauza bera aitatasunaz gizonen %5,4k bakarrik uste du. Halere, bost gizon okupatutako batek uste du aitatasun-baimena eskatzeak kalte handia lekarkiokeela ibilbide profesionalari.

Hiru lurraldeetan soldatiko langile izatea nahiago dutenen portzentajea Euskal AEkotik (%83,6) gertu dago. Gipuzkoako pertsona okupatuen %57,4k nahiago dute enpresa txiki bat lanerako, %55,5ek sektore pribatua eta %17,4k autonomia izatea. Lurraldeak badu profil zehatzik honetaz. Oso bestelakoak dira arabarren lehentasunak: %63,6k enpresa handia aukeratuko luke eta %56,1ek sektore publikoa. Bizkaitarrak gertuago daude arabarregandik: %57,7k enpresa handiak nahiago eta %53,9k sektore publikoa.


2010aren aldean ez dago alde handirik egoera profesionalarekiko lehentasunez. Enpresa-tamainari eta okupazio-sektoreari erreparatuz gero badago alderik: ehuneko 10 bat puntuz hazi dira bai enpresa txikia nahiago dutenak, bai sektore pribatua nahiago dutenak

Lanalditik kanpo adin txikikoen %2,1 bakarrik zaintzen ditu aita nagusiki; amek %11

Bi bikotekideak lanean ari diren etxeetan eta guraso bakarrekoetan, aitaren edo amaren lanalditik kanpo adin txikikoak zaintzea bien ardura da %84,8an; halere, kasu hauetako %1,7an bakarrik da aita arduratzen dena, eta ama %11,8an.

Etxe beretan eta adin txikikoak lanalditik eta eskola-ordutegitik kanpo zaintzeaz ari garela, kasuen %57,8an ordainketarik gabeko senide edo bestelako pertsonaren bat arduratzen da, %14,1ean bi bikotekideak eta %12,4an ordaindutako pertsona bat.

Euskal AEko landunen 15 urtetik beherako seme-alaben zainketa, lanalditik kanpo, bi bikotekideek lan egiten duten etxeetan edo guraso bakarreko etxeetan. (%)



Iturria: Eustat. Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta

Mendeko senideak zaintzekotan, emakume okupatuen %40,1ek egunero 3 ordu edo gehiago ematen ditu; gizonen %16,9k egiten du beste horrenbeste.

Informazio gehiago:

Eustat - Euskal Estatistika Erakundea / Instituto Vasco de Estadística

Donostia-San Sebastián, 1. 01010 Vitoria-Gasteiz

Prensa zerbitzua: servicioprensa@eustat.es Tel.: 945 01 75 62

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU). Prentsa-ohar gehiago

Lana, familia eta norberaren bizitza uztartzeari buruzko inkesta (LBU). Datu-bankua